- c) Indusketa arkeologikoa: aztarna arkeologikoak eta paleontologikoak ikertzeko, dokumentatzeko eta lurpetik ateratzeko edo erazteko jardura da, sedimentuen estratigrafiari jarraituz.
- d) Kontrol arkeologikoa: interes arkeologikoa izan dezakeen espazio bati eragiten dioten edo eragin diezaioketen obra-prozesu batean esku hartzea da, hau da, obra horiek gainbegiratzea, behar izanez gero, obra horiek egiten diren bitartean agertzen diren interes arkeologikoko ebidentzia edo elementuen kontserbazioa edo dokumentazioa ahalbidetzen duten neurri egokiak ezarrita.
- e) Labar-artearen ikerketa: metodo arkeologikoaren bidez ikertuak izan daitezkeen labar-adierazpenak eta haien testuinguruak ikertzera, haien dokumentazio grafikoa egitera eta erreproduzitzera zuzendutako landa-lanen multzoa da.
- f) Altxaeren azterketa estratigrafikoa: eraikinen eraikuntza-bilakaera aztertzeke eta ezagutzeko metodologia arkeologikoa aplikatzea da. Ez da jardura arkeologikotzat joko altxaeren azterketa estratigrafikoa, baldin eta haren xedea hezkuntza-metodoa edo prestakuntza ezagutzea edo ikastea bada eta ez badakar berekin ondasunaren gaineko loturarik.
- g) Jardura paleontologikoak: jardura paleontologikotzat joko dira zona paleontologikoa ikasgai duten landa-lanak (prospekzioak, zundaketak, indusketak edo kontrolak izanik ere), zonak ez badu metodologia arkeologikoa aplikatzea eskatzen, horrela denean zona arkeologikotzat joko baita.
- b) Sondeo arqueológico: es la excavación de reducidas dimensiones en relación y proporción con el todo, realizada con objeto de reconocer la secuencia estratigráfica de un yacimiento arqueológico.
- c) Excavación arqueológica: es la actividad de investigar, documentar y desenterrar o extraer restos arqueológicos y paleontológicos atendiendo a la estratigrafía de los sedimentos.
- d) Control arqueológico: es la intervención en un proceso de obras que afectan o pueden afectar a un espacio de posible interés arqueológico, consistente con la supervisión de aquéllas, estableciendo las medidas oportunas que permitan la conservación o documentación, en su caso, de las evidencias o elementos de interés arqueológico que aparezcan en el transcurso de las mismas.
- e) Estudio de arte rupestre: es el conjunto de tareas de campo orientadas al estudio, documentación gráfica y reproducción de manifestaciones rupestres susceptibles de ser estudiadas por el método arqueológico y de su contexto.
- f) Análisis estratigráfico de los alzados: es la aplicación de la metodología arqueológica para el análisis y conocimiento de la evolución constructiva de las edificaciones. No se considerará actividad arqueológica el análisis estratigráfico de los alzados cuyo objeto es el conocimiento o aprendizaje del método o la formación educativa y no impliquen afecciones sobre el bien.
- g) Actividades paleontológicas: tendrán la consideración de actividades paleontológicas los trabajos de campo, sean éstos de prospección, sondeo, excavación o control, cuyo objeto de estudio sea una zona paleontológica siempre que esta no requiera de la aplicación de la metodología arqueológica, en cuyo caso se tratará como zona arqueológica.

65. artikulua. Ustezko eremu arkeologikoa

1. Aztarna arkeologikoak egon daitezkeela uste den eremuetan, orubeetan edo eraikinetan, jabeak edo egin nahi diren obren

Artículo 65. Zona de presunción arqueológica

1. En las zonas, solares o edificaciones en que se presume la existencia de restos arqueológicos, la persona propietaria o





sustatzaileak azterketa bat aurkeztu behar du, hirigintzako lizentzia eman baino lehenago, orubearen edo eraikinaren balio arkeologikoari eta obra-proiektuan izan dezakeen eraginari buruz. Foru-aldundiek arautu egingo dute zein kasutan ez den beharrezkoa izango azterketa hori aurkeztea proiektu arkeologikoa egiteko.

2. Behin azterketa egin eta gero, foru-aldundiak zehaztuko du ea proiektu arkeologikoa beharrezkoa den edo ez, eta, hori guztia ikusirik, obra-lizentziaren aurreko baimena emango du. Proiektu arkeologikoa idazteari eta betearazteari dagokionez, lege honen 67. artikuluan aurreikusten den laguntzen araubidean ezarritakoari jarraituko zaio.
3. Lortutako informazioan oinarrituta erabakiko da beharrezkoa den ala ez babes ematea babes berezia edo ertaina duen kultura-intereseko ondasun deklaraturaz, edo adieraziko da lege honen arabera babes merezi izateko moduko kultura-baliorik ez duela, eta, horrenbestez, eremuari ez zaio inolako babesik emango.

66. artikulua. Jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak baimentzea

1. EAren lurralde-eremuan jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko –lurrekoak edo urpekoak izan–, kasuan kasuko foru-aldundiaren alde aurreko baimena beharko da, salbu eta lurra iraultzea ez dakarten gainazaleko prospekzio-proiektuak edo eraikinen altxaerak direnean.
2. Baimenaren titularrak baimentzen den jarduera arkeologiko eta paleontologikoaren zuzendaria izan behar du. Baimenaren titularrak pertsona fisiko bat izan beharko du, eta baimentzen diren jarduera arkeologikoen edo paleontologikoen zuzendaritza bere gain hartzeko behar besteko arkeologia edo paleontologia alorretako formakuntzadun unibertsitate-titulazioa eta esperientzia duela egiaztatu beharko du.
3. Foru-aldundi bakoitzak arautuko ditu nahitaezko baimena emateko modua, bai eta baimena ematek ondorioztatzen diren betebeharrak ere. Dena den, baimenaren

promotora de las obras que se pretendan realizar deberá aportar, con carácter previo al otorgamiento de la licencia urbanística, un estudio referente al valor arqueológico del solar o edificación y la incidencia que pueda tener el proyecto de obras. Las diputaciones forales regularán los supuestos en los que no sea necesaria la presentación de dicho estudio para la realización del proyecto arqueológico.

2. Una vez realizado, en su caso, el estudio, la diputación foral determinará la necesidad del proyecto arqueológico, y a la vista de todo ello otorgará la autorización previa a la licencia de obras. En cuanto a la redacción y ejecución del proyecto arqueológico, se estará a lo dispuesto en el régimen de ayudas previsto en el artículo 67 de la presente ley.
3. Con base en la información obtenida, se determinará la procedencia de su protección mediante la declaración de bien de interés cultural de protección especial o media, o bien se constará que carece de valores culturales merecedores de protección de conformidad con esta ley, por lo que no se le otorgará ninguna protección.

Artículo 66. Autorización de actividades arqueológicas y paleontológicas

1. La realización de actividades arqueológicas o paleontológicas, terrestres o subacuáticas, en el ámbito territorial de la CAPV, precisará autorización previa de la diputación foral correspondiente, exceptuando los proyectos de prospección superficial que no conlleven remoción de tierras y los alzados de los edificios.
2. La persona titular de la autorización deberá ser el director o la directora de la actividad arqueológica y paleontológica objeto de autorización. La persona titular de la autorización deberá ser una persona física que acredite una titulación universitaria con formación suficiente en arqueología o paleontología y experiencia contrastada para asumir la dirección de las actividades arqueológicas o paleontológicas que se autorizan.
3. La concesión de la preceptiva autorización, así como las obligaciones derivadas de su otorgamiento, serán reguladas por las respectivas diputaciones forales. En todo





titularrak nahitaezko txostenen eta memorien kopia bidaliko dizkio Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailari, bai eta lortutako materialen inbentarioen kopia ere, material horiek zein estratigrafiatetik datozen identifikatuz.

4. Deklaratutako eremu edo ondasun arkeologikoei edo paleontologikoei eragiten dien edonolako obraren ondorioz jarduera arkeologikoa edo paleontologikoa egitea beharrezko bihurtzen denean, obraren sustatzaileak kasuan kasuko proiektu arkeologikoa edo paleontologikoa aurkeztu beharko dio ondasuna kokatuta dagoen lurralde historikoko foru-aldundiari, obra horiek egin aurretik proiektu hori onar dezan.
5. Esku-hartzearen eremuaren garai historikoetara egokitzen den prestakuntza egiaztatzen dutenei bakarrik emango zaizkie jarduera arkeologikoen zuzendaritzarako baimenak.
6. Eremu paleontologiko batean ikerketako edozein landa-lanen zuzendaritza-ardura izateko, eremu hori kokatuta dagoen lurralde historikoko foru-aldundiak ikertu nahi den aztarnategiaren ezaugarrietarako egokia den titulazio akademikoa exijitu beharko du. Nolanahi ere, ziurtatuta geratu beharko da zuzendari horrek paleontologia-lanetan edo lekuko tipologiarekin bat datozen natura-zientzien adarretan duen prestakuntza.
7. Eremu paleontologiko baten gaineko esku-hartzearen garapenak metodologia arkeologikoaren aplikazioa eskatzen duenean, esku-hartze hori jarduera arkeologikotzat aitortua izango da zuzenean, eta nahitaez bete beharrekoak izango dira lege honek jarduera arkeologikoei buruz ezartzen dituen zehaztapenak.

67. artikulua. Proiektu arkeologikoak eta paleontologikoak finantzatzea

Babes berezia edo ertaina duten kultura-ondasunei eragiten dien edozein obratan proiektu arkeologikoen eta paleontologikoen idazketaren eta betearazpenaren finantzaketa jardueren titularraren kontura izango da, zuzenbide publikoko erakundeak direnean. Baldin eta titularrak pribatua bada, kasuan kasuko foru-aldundiak bere gain

caso, la persona titular de la autorización enviará al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural copia de los informes y memorias preceptivos, así como de los inventarios de los materiales obtenidos, con identificación de la estratigrafía de la que proceden.

4. En los casos en que la actuación arqueológica o paleontológica se haga necesaria como consecuencia de cualquier tipo de obras que afecten a zonas o bienes arqueológicos o paleontológicos declarados, el promotor o la promotora de las obras deberá presentar el correspondiente proyecto arqueológico o paleontológico ante la diputación foral del territorio histórico en que radique el bien, para su aprobación previa a la ejecución de dichas obras.
5. Únicamente se otorgarán autorizaciones para la dirección de actividades arqueológicas a quienes acrediten formación adecuada al periodo o periodos históricos que se correspondan con la zona de intervención.
6. Para la dirección de cualquier trabajo de campo de investigación en una zona paleontológica, la diputación foral del territorio histórico en que se localice dicha zona habrá de exigir la titulación académica adecuada a las características del yacimiento que se pretende investigar. En cualquier caso, deberá quedar certificada su formación en paleontología o en las ramas de las ciencias de la naturaleza acordes con la tipología del lugar.
7. En caso de que el desarrollo de la intervención sobre una zona paleontológica requiera de la aplicación de metodología arqueológica, pasará automáticamente a ser reconocida como actividad arqueológica, siendo de obligado cumplimiento las determinaciones que esta ley establece para las actividades arqueológicas.

Artículo 67. Financiación de los proyectos arqueológicos y paleontológicos

La financiación de la redacción y ejecución de los proyectos arqueológicos y paleontológicos en cualquier tipo de obras que afecten a bienes culturales de protección especial o media correrá a cargo de la persona titular de las actuaciones afectantes, en el caso de que se trate de entidades de derecho público. En caso de que la persona





hartuko du gastuen parte bat laguntzak emanez, edo zuzenean gauzatuko du proiektua, horrela egitea beharrezkotzat jotz gero. Foru-aldundia, dena dela, behartuta egongo da jarduera arkeologikoak hartuko duen guztizko kopuruaren % 50 ordaintzera.

68. artikulua. Eremu arkeologikoetan esku hartzeko proiektuen betebeharrak

1. Ez da baimenduko, inola ere, egin beharreko esku-hartzea egin ondoren aztarnategia egokitzeko neurririk jasotzen ez duen ikerketako proiektu arkeologikorik egitea. Neurri horiek aztarnategiaren eta agerian jarritako aztarnen kontserbazioa bermatu beharko dute, aztarna horien balioa nabarmentzeko.
2. Kasuan kasuko foru-aldundiak baimendu beharko du eremu arkeologiko bateko aztarnak sendotzeko, zaharberritzeko edo haren balioa nabarmentzeko proiektu oro. Horrelako proiektu bat ezingo da baimendu, aurretik ez bada egiten azterketa arkeologiko xehekatu bat, zaharberritu, sendotu edo balioztatu nahi dena zehazteko. Azterketa horrek aztarnategiaren berreraikuntza eta haren balioa nabarmentzea ziurtatuko duten oinarriak finkatu eta irizpideak ezarri beharko ditu, eraikuntza- eta okupazio-historiaren arabera.

69. artikulua. Jarduera arkeologikoen eta paleontologikoen titularren nahitaezko komunikazioak, eta materialak gordailutzeko lekua adieraztea

1. Jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimenaren titularrek jarduera arkeologikoen eta paleontologikoen hasiera- eta amaiera-data jakinaraziko dizkiote kasuan kasuko foru-aldundiari, eta, halaber, jarduera garatzean gertatzen diren gorabehera guztien berri eman beharko diote.
2. Baimenaren titularrak berak zuzendu beharko ditu jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak, eta jarduera horiek bertatik bertara ikusi beharko ditu. Baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, titularrak jarduerak bertatik bertara zuzentzea ezinezkoa badu, horren berri eman beharko dio kasuan kasuko foru-aldundiari eta bere erantzukizuna beste pertsona baten esku utzi beharko du, zeinak titularra ez dagoenean

titular sea privada, la diputación foral correspondiente participará en la asunción de los gastos mediante la concesión de ayudas o ejecutará directamente el proyecto, si lo estima necesario. En todo caso, la diputación foral estará obligada a satisfacer el 50 % del monto total que suponga la actuación arqueológica.

Artículo 68. Requisitos de los proyectos de intervención en zonas arqueológicas

1. No se autorizará, en ningún caso, la realización de un proyecto arqueológico de investigación que no incluya medidas de adecuación del yacimiento posteriores a la intervención. Estas medidas deberán garantizar la conservación del yacimiento y de los restos puestos al descubierto para su puesta en valor.
2. Todo proyecto de consolidación, restauración o puesta en valor de los restos de una zona arqueológica deberá ser autorizado por la diputación foral correspondiente. Ningún proyecto de este tipo podrá ser autorizado si no va precedido de un estudio arqueológico detallado de lo que se pretenda restaurar, consolidar o poner en valor. Este estudio deberá sentar las bases y establecer los criterios que aseguren la reconstrucción y puesta en valor del yacimiento, de acuerdo a su historia constructiva y de ocupación.

Artículo 69. Comunicaciones preceptivas de las personas titulares de actividades arqueológicas y paleontológicas, y señalamiento del lugar de depósito de materiales

1. Las personas titulares de autorización de actividades arqueológicas y paleontológicas notificarán a la diputación foral correspondiente la fecha de inicio y de finalización de las actividades arqueológicas y paleontológicas, debiendo comunicar cuantas incidencias se produzcan en el desarrollo de la actividad.
2. La persona titular de la autorización deberá dirigir personalmente las actividades arqueológicas y paleontológicas, debiendo presenciar las mismas. En caso de imposibilidad de ejercicio presencial de la dirección por motivos justificados, deberá ponerlo en conocimiento de la diputación foral correspondiente, delegando su responsabilidad en una persona que reúna los requisitos de titulación, capacitación





jardueren zuzendaritza bere gain hartzeko zenbait baldintza bete beharko baititu, titulazioari, gaitasun profesionalari eta behar besteko ezagutzari dagokienez.

3. Behin landa-lanak amaituta, esku-hartzea amaitzen denetik gehienez ere hamabost eguneko epean, jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiteko baimenaren titularrek Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailari jakinarazi beharko diote material arkeologikoak edo paleontologikoak jaso dituztela, horrelakorik badago, eta eskatu beharko dute material horiek gordailuzteko sigla eta lekua komunikatzeko.
4. Behin materialen berreskurapena baieztatuta, Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailak identifikazio-sigla esleituko dio aztarnategiari, edo aurretik dagoena jakinaraziko du, aurreko esku-hartzerik egon bada. Orobat, esku-hartze arkeologiko eta paleontologikoko zuzendaritzari jakinaraziko dio zer lekutan gordailutu behar diren berreskuratutako materialak: oro har, lurralde-museoetan edo Eusko Jaurlaritzak horretarako izendutako gordailuzteko lekuak izango dira.
5. Material paleontologiko hutsak gordailuzteko lekua adierazteko, izaera horren arabera zentroak aukeratuko dira, natura-zientziei lotutakoak, lehentasunez.

70. artikulua. Interes arkeologikoa eta paleontologikoa duten ondasunak gordailuztea

1. Jarduera arkeologiko eta paleontologiko baimenduen ondorioz eta ustekabean aurkitzen diren ondasunak kasuan kasuko lurralde-museoetan edo Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailak xede horretarako izendatzen dituen zentroetan gordailutu beharko dira, eta haren baimenarekin bakarrik lekualdatu ahal izango dira beste zentro batzuetara, xedatuko denari jarraituz. Lekualdaketarako baimena egiteko, dagokion foru-aldundiaren aldeko txostena beharko da, erakunde horri dagozkionean bere kontserbazioa eta gordetzea.

profesional y conocimientos necesarios para asumir la dirección en su ausencia.

3. Finalizados los trabajos de campo, en el plazo máximo de quince días desde la finalización de la intervención, las personas titulares de la autorización de actividades arqueológicas y paleontológicas deberán comunicar al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural la recogida, en su caso, de materiales arqueológicos y paleontológicos, solicitando que le sea asignada sigla al yacimiento y lugar de depósito para esos materiales.
4. Confirmada la recuperación de materiales, el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural asignará la sigla de identificación al yacimiento o notificará la ya existente, caso de existir intervenciones anteriores. Asimismo, comunicará a la dirección de la intervención arqueológica y paleontológica el lugar donde debe procederse al depósito de los materiales recuperados, que serán, como norma general, los museos territoriales o centros de depósito designados para tal fin por el Gobierno Vasco.
5. Para la designación del lugar de depósito de los materiales de naturaleza exclusivamente paleontológica serán elegidos preferiblemente centros acordes con su naturaleza, asociados a las ciencias naturales.

Artículo 70. Depósito de bienes de interés arqueológico y paleontológico

1. Los bienes hallados como consecuencia de actividades arqueológicas y paleontológicas autorizadas y de hallazgos casuales deberán ser depositados en los museos territoriales correspondientes o en aquellos centros que a tal fin designe el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural y solamente podrán ser trasladados a otros centros con su autorización, basándose en lo que se disponga. La autorización de traslado deberá realizarse con el informe favorable de la diputación foral correspondiente, en los casos en los que su depósito y conservación correspondan a dicha institución.





2. Ustekabeen aurkitutako interes arkeologikoko eta paleontologikoko objektuak eta gainerako materialak aurkitu diren lekuan bertan utzi beharko dira, harik eta foru-aldundiak haiei buruzko irizpena ematen duen arte. Salbuespen gisa, material horiek desagertzeko edo hondatzeko arrisku larria daukatenean, ondasunaren izaerak ahalbidetzen badu, kasuan kasuko lurralde-museoan edo Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailak xede horretarako izendatzen duen zentroan entregatu beharko dira.

71. artikulua. Baimendutako jarduera arkeologikoen eta paleontologikoen txostena

1. Behin materialak horretarako izendatutako lekuan gordailututa, edozein jarduera arkeologiko eta paleontologiko egiteko baimenaren titularrak jarduera horri dagokion txostena aurkeztu beharko du kasuan kasuko foru-aldundian, erregelamenduz zehazten diren baldintzetan, baimendutako esku-hartze hori amaitzen denetik zenbatuta gehienez ere bi urteko epean.
2. Indusketa sistematikoko prozesuen mende dauden aztarnategien kasuan, haiek garatzeko urte bat baino gehiago behar bada, txosten bat aurkeztu beharko da, gehienez ere bi urteko epean, bosgarren kanpainaren amaieratik aurrera –edo azken kanpainaren amaieratik, bost baino gutxiago badaude–, zeinean hura ematen den data arte lortutako emaitzak bilduko baitira. Dena dela, behin aztarnategiko lan arkeologikoak edo paleontologikoak amaituta, amaierako txostena aurkeztu beharko da gehienez ere bi urteko epean, baimendutako esku-hartze arkeologikoa edo paleontologikoa behin betiko ixten denetik.
3. Baimenaren titularrak Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailari igorriko dio memoriaren kopia, lortutako materialen behin betiko inbentarioa erantsita, material horiek zein estratigrafiatik datozen identifikatuz, eta esku-hartze horretan zehar sortutako dokumentazio grafikoa erantsita ere.
4. Txosten berri horiek ikusirik, Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen eskumena duen sailak erregistroak eta inbentarioak eguneratu beharko ditu, eta, behar izanez

2. Los objetos y restos materiales de interés arqueológico y paleontológico descubiertos casualmente deberán ser mantenidos en el lugar en que han sido hallados hasta que la diputación foral dictamine al respecto. Excepcionalmente, en el caso de que corran grave peligro de desaparición o deterioro, deberán ser entregados, si la naturaleza del bien lo permite, en el museo territorial correspondiente o centro que a tal fin designe el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural.

Artículo 71. Memoria de las actividades arqueológicas y paleontológicas autorizadas

1. Depositados los materiales en el lugar designado al efecto, la persona titular de la autorización de cualquier actividad arqueológica y paleontológica, en el plazo máximo de dos años a contar desde la finalización de la intervención autorizada, deberá presentar en la diputación foral que corresponda la memoria de dicha actividad, en los términos que reglamentariamente se determinen.
2. En el caso de yacimientos sometidos a procesos de excavación sistemática, cuyo desarrollo supere el marco anual, en el plazo máximo de dos años a partir del final de la quinta campaña, o del final de la última campaña, si hubiera menos de cinco, deberá presentarse la memoria con los resultados obtenidos hasta la fecha de su emisión. En todo caso, una vez finalizados los trabajos arqueológicos o paleontológicos en el yacimiento, deberá presentarse la memoria final en un plazo máximo de dos años, desde el cierre definitivo de la intervención arqueológica o paleontológica autorizada.
3. La persona titular de la autorización remitirá al departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural copia de la memoria acompañada del inventario definitivo de los materiales obtenidos, con identificación de la estratigrafía de la que proceden y de la documentación gráfica generada en el transcurso de la intervención.
4. A la vista de los nuevos informes, el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de patrimonio cultural deberá actualizar sus registros e





gero, aztarnategiaren egoera berritik ondoriozta daitekeen babes-prozedurari ekin beharko dio. Aldiz, txosten horietatik ondorioztatzen bada ez direla agertzen aztarnategia kultura-ondasun deklaratzera eraman zuten balioak, deklarazio hori ondorioz gabe uzteko prozedurari ekingo zaio.

5. Foru-aldundien eginkizuna da baimendutako jarduera arkeologiko eta paleontologikoei buruzko txostenaren edukia ezartzea.

72. artikulua. Materialak eta materialei dagokien dokumentazioa jendearen eskuan jartzea

Jarduera arkeologiko eta paleontologikoak zuzentzeko baimena duen pertsonak baino ezingo ditu entregatutako materialen gaineko azterketa eta ikerketak egin, entrega hori egiten denetik bi urteko epean; pertsona horrek berariaz baimena eman dezake epe hori bukatu baino lehenago materialok jendaurrean uzteko, beste azterlan eta ikerketetarako probetxugarriak izan daitezzen.

73. artikulua. Foru-aldundien zuzeneko esku-hartzeak

1. Foru-aldundiek zuzenean gauzatu ahal izango dute edozein esku-hartze arkeologiko, interes arkeologikoa duten aztarnak daudela inork jakiten duen edo daudela uste den edozein lekutan, eta, xede horretarako, bizkortasun-printzipioaren arabera jardungo dute, ahalik eta kalterik txikiena egiten saiatuta. Jarduera horiek ekonomikoki ebalua daitezkeen kalteak badakartzate, haien kalte-ordaina Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legean aldi baterako okupazioei buruz xedatutakoaren arabera egingo da.
2. Foru-aldundiek, era berean, beharrezkoak diren esku-hartze arkeologikoak eta paleontologikoak gauzatzeko agindu ahal izango dute, kasuan kasuko proiektu arkeologikoa edo paleontologikoa aurkeztu eta onartu ondoren, gune arkeologiko edo paleontologiko babestuei dagokienez, baldin eta haien kontserbazioa edo dokumentazioa arriskuan badago lege honetan xedatutakoa ez betetzeagatik. Kasu horietan, proiektu arkeologikoaren edo paleontologikoaren finantzaketa osoa arau-hauslearen kontura

inventarios y, en su caso, iniciar el procedimiento de protección que pueda derivarse de la nueva situación del yacimiento. Por el contrario, si de estos informes se deduce la ausencia de los valores que llevaron a su declaración como bien cultural, se iniciará el procedimiento para dejar sin efecto dicha declaración.

5. Corresponde a las diputaciones forales establecer los contenidos de la memoria de las actividades arqueológicas y paleontológicas autorizadas.

Artículo 72. Puesta a disposición del público de los materiales y documentación correspondiente

Los estudios e investigaciones sobre los materiales entregados sólo podrán ser realizados por la persona autorizada para dirigir las actividades arqueológicas o paleontológicas durante los dos años siguientes a dicha entrega, a no ser que esa persona autorice expresamente que queden a disposición del público con anterioridad, al objeto de facilitar otros estudios e investigaciones.

Artículo 73. Intervenciones directas de las diputaciones forales

1. Las diputaciones forales podrán ejecutar directamente cualquier intervención arqueológica o paleontológica en cualquier lugar en que se conozca o presuma la existencia de restos de interés arqueológico o paleontológico, actuando a tal efecto de conformidad con el principio de celeridad y procurando causar el menor daño posible. La indemnización de estas actuaciones, en el caso de que supongan daños económicamente evaluables, se realizará conforme a lo previsto en la Ley de Expropiación Forzosa para las ocupaciones temporales.
2. Asimismo, las diputaciones forales podrán ordenar la ejecución de las intervenciones arqueológicas y paleontológicas necesarias, previa presentación y aprobación del proyecto arqueológico o paleontológico correspondiente, respecto de zonas arqueológicas o paleontológicas protegidas cuya conservación o documentación peligre por incumplimiento de lo dispuesto en esta ley. En estos casos, la financiación del proyecto arqueológico o paleontológico correrá en su totalidad a cargo de la





izango da, ezar dakioken beste edozein zehapenez gainera. Bien bitartean, kautelaz eten ahal izango dira ondare arkeologikoa edo paleontologikoa arriskuan jartzen duten jarduerak.

74. artikulua. Interes arkeologikoa eta paleontologikoa duten ondasunen aurkikuntzak

1. EAEren lurralde-eremuan aurkitzen diren interes arkeologikoko eta paleontologikoko ondasunak, direla ezustekoak, direla xede horretarako eskainitako lan sistematiko baten ondoriozkoak, jabari publikokoak izango dira.
2. Lege honen ondorioetarako, ezusteko aurkikuntzatzat joko da euskal kultura-ondareari dagozkion balioen jabe diren objektuak eta aztarna materialak aurkitzea, baldin eta aurkikuntza horiek zoriz edo edonolako lur-mugimenduren eta eraispenen baten edo edozein motatako lanen ondorioz gertatzen badira, betiere horrelako objekturik edo aztarnarik zegoela inork ez zekien lekuetan.
3. Baimendutako jarduera arkeologikoak eta paleontologikoak egiten direnean, aurkitzaileek kasuan kasuko foru-aldundiari jakinarazi beharko dizkiote aurkikuntzak eta lortutako emaitzak, erregelamenduz aurreikusten den epean.
4. Ezusteko aurkikuntzak berehala jakinarazi beharko zaizkio kasuan kasuko foru-aldundiari edo udalari. Udalak, edonola ere, foru-aldundiari eman beharko dio horren berri, berrogeita zortzi orduko epean.
5. Aurkikuntza hori lur-mugimenduengatik edo edozein motatako obrarengatik lortu bada, kasuan kasuko foru-aldundiak –edo, urgentziazko kasuetan, udal bakoitzeko alkateek– lan horiek berehala geldiarazteko agindu ahal izango dute gehienez ere hamabost egunetako eperako, foru-aldundi horri berrogeita zortzi orduko epean lanen geldiaraztea jakinaraziz. Geldiarazte horrek ez du ekarriko inolako kalte-ordainika jasotzeko eskubiderik. Beharrezko gertatzen bada, foru-aldundiak luzatu ahal izango du etenaldia, kasuan kasuko jarduera arkeologikoa izan dadin. Kasu horretan,

persona infractora, con independencia de la sanción que, en su caso, pueda recaer. Entre tanto, podrán ser suspendidas cautelarmente las actuaciones que hacen peligrar el patrimonio arqueológico o paleontológico.

Artículo 74. Hallazgos de bienes de interés arqueológico y paleontológico

1. Los bienes de interés arqueológico y paleontológico descubiertos en el ámbito territorial de la CAPV, ya sea de forma casual o fruto de un trabajo sistemático dedicado a tal fin, serán de dominio público.
2. A los efectos de la presente ley, tendrán la consideración de hallazgos casuales los descubrimientos de objetos y restos materiales poseedores de los valores que son propios del patrimonio cultural vasco que se hayan producido por azar o como consecuencia de cualquier tipo de remociones de tierra, demoliciones u obras de cualquier índole en lugares en que se desconocía la existencia de los mismos.
3. Cuando se trate de actividades arqueológicas y paleontológicas autorizadas, las personas que realicen descubrimientos deberán notificar a la diputación foral correspondiente los hallazgos y resultados obtenidos, en el plazo que reglamentariamente se prevea.
4. Los hallazgos casuales deberán ser notificados inmediatamente a la diputación foral o al ayuntamiento correspondiente. En todo caso, el ayuntamiento deberá ponerlo en conocimiento de la diputación foral en un plazo de cuarenta y ocho horas.
5. Si el hallazgo ha sido obtenido por la remoción de tierras u obras de cualquier índole, la diputación foral correspondiente o, en caso de urgencia, las personas titulares de las alcaldías de los municipios respectivos, notificando a dicha diputación en el plazo de cuarenta y ocho horas, podrán ordenar la interrupción inmediata de los trabajos durante un plazo máximo de quince días. Dicha paralización no comportará derecho a indemnización alguna. En caso de que resulte necesario, la diputación foral podrá mantener la suspensión para realizar la actuación





herri-administrazioen erantzukizunari buruzko legerian xedatutakoari jarraituko zaio.

Foru-aldundiek beren gain hartuko dute proiektu arkeologikoa idazteko eta betearazteko kostua, proiektu hori beharrezko gertatzen bada, salbu eta Eusko Jaurlaritzak eragindako ondasuna deklaratzeko espediente bat abiarazten badu; kasu horretan, lege honen 67. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

X. TITULUA SUSTAPEN NEURRIAK

75. artikulua. Sustapen-neurri ekonomikoak

1. Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, lege honen hirugarren artikuluan aurreikusitako eskumenak baliatuz, euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunen titularrei laguntza ekonomikoa emateko neurriak arautuko dituzte, lege honetan aurreikusitako betebeharrak –ondasun horiek kontserbatzeari, zaintzeari, haien balioa nabarmentzeari eta zabalkundea emateari dagokienez– bete daitezten sustatze aldera.
2. Artikulu honetan jasotako sustapen-neurri ekonomikoak ematean behar diren bermeak ezarriko dira, neurri horien bidez kontserbatzen, zaharberritzen edo hobetzen diren ondasunekin espekulatzerik egon ez dadin.
3. Artikulu honetan aipatzen den laguntza ekonomikoa ematen denetik hamar urteko epean Eusko Jaurlaritzak edo kasuan kasuko foru-aldundiak lagundutako kultura-ondarea eskuratzen badu, eskuratze-prezioari kopuru bat kenduko zaio, hain zuzen, laguntzaren zenbateko gaurkotuaren baliokidea izango dena, laguntza konturako ordainketatzat joko baita.
4. Lege honetan ezarritako kontserbazio-betebeharra betetzen ez duten titularrek ezin izango dituzte jaso artikulu honetan aurreikusitako sustapen-neurriak.

76. artikulua. Euskal kultura-ondarera bideratutako ehunekoa

1. Aurreko artikuluan ezarritakoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta haren lurralde historikoen administrazioek

arqueológica correspondiente. En este caso, se estará a lo dispuesto en la legislación general sobre la responsabilidad de las administraciones públicas.

Las diputaciones forales asumirán los costes de redacción y ejecución del proyecto arqueológico, en caso de que el mismo resulte necesario, salvo que el Gobierno Vasco incoe expediente para declarar el bien afectado, en cuyo caso se estará a lo dispuesto en el artículo 67 de la presente ley.

TÍTULO X DE LAS MEDIDAS DE FOMENTO

Artículo 75. Medidas económicas de fomento

1. El Gobierno Vasco y las diputaciones forales regularán, con base en las competencias previstas en el artículo tercero de la presente norma, medidas de ayuda económica destinadas a las personas titulares de bienes integrantes del patrimonio cultural vasco, al objeto de fomentar el cumplimiento de las obligaciones de conservación, salvaguarda, puesta en valor y difusión de dichos bienes previstas en esta ley.
2. En el otorgamiento de las medidas económicas de fomento contempladas en este artículo se fijarán las garantías necesarias para evitar la especulación con los bienes que con ellas se conserven, restauren o mejoren.
3. Si en el plazo de diez años, a contar desde el otorgamiento de la ayuda económica a la que se refiere este artículo, el Gobierno Vasco o la diputación foral correspondiente adquiriera el bien cultural que ha sido objeto de ayuda, se deducirá del precio de adquisición una cantidad equivalente al importe actualizado de la ayuda, que se considerará como pago a cuenta.
4. Las personas titulares que no cumplan el deber de conservación establecido en esta ley no podrán acogerse a las medidas de fomento previstas en este artículo.

Artículo 76. Porcentaje destinado al patrimonio cultural vasco

1. En aras del cumplimiento del artículo precedente, las administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de





lan publikoa finantzatzera zuzendutako aurrekontu-atalen % 1 baliatuko dute, gutxienez, euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunak kontserbatzeko, zaintzeko, haien zabalkundea egiteko eta haien balioa nabarmentzeko.

2. Betekizun horretatik salbuetsita daude lege honen helburuak betetzeko egiten diren obrak.
3. Lege hau garatzeko erregelamenduan ezarriko da euskal kultura-ondarera zuzendutako ehunekoa aplikatzeko sistema zehatza.

77. artikulua. Euskal kultura-ondarea kontserbatzeko eta haren balioa nabarmentzeko pizgarri fiskalak

1. Foru-aldundiek arautu ahalko dute, beren eskumenen esparruan, euskal kultura-ondarearen titularrek hura kontserbatzeko eta haren balioa nabarmentzeko pizgarri fiskalak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru-arauetan, sozietate-zergan, ondarearen zergan, ondasun higiezinaren gaineko zergan, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan eta eraikuntza, instalazio eta obren zergan.
2. Orobat, foru-erakundeek euskal kultura-ondarea kontserbatzera eta haren balioa nabarmentzera zuzendutako dohaintzen pizgarri fiskalak arautu ahalko dituzte, mezenasgoaren pizgarri fiskalak arautzen dituzten foru-arauetan.

78. artikulua. Euskal kultura-ondareko ondasunak ordainean ematea

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorrarekin sortutako zorrak osorik edo partzialki ordaindu ahalko dira euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasun higiezinak eta higigarriak ordainean emanez, zerga-arautegian aplikatzekoak diren foru-arauetan ezarritakoaren arabera.

79. artikulua. Euskal kultura-ondarearen gaineko ikaskuntza, ikerketa eta prestakuntza

1. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan, unitate didaktikoak egingo ditu formatu digitalean Historiaren eta Artearen ezagutza-arloetako

sus territorios históricos destinarán a la conservación, salvaguarda, puesta en valor y difusión de los bienes integrantes del patrimonio cultural vasco el equivalente, al menos, al 1 % de las partidas presupuestarias destinadas a la financiación de obra pública.

2. Quedan exceptuadas de esta obligación las obras que se realicen en cumplimiento de los objetivos de esta ley.
3. En el reglamento de desarrollo de esta ley se determinará el sistema concreto de aplicación del porcentaje destinado al patrimonio cultural vasco.

Artículo 77. Incentivos fiscales a la conservación y puesta en valor del patrimonio cultural vasco

1. Las instituciones forales podrán regular, en el marco de sus competencias, los incentivos fiscales a la conservación y puesta en valor del patrimonio cultural vasco por parte de sus titulares en las normas forales del impuesto sobre la renta de las personas físicas, el impuesto de sociedades, el impuesto de patrimonio, el impuesto sobre bienes inmuebles, el impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana y el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras.
2. Asimismo, las instituciones forales podrán regular los incentivos fiscales de las donaciones destinadas a la conservación y puesta en valor del patrimonio cultural vasco en las normas forales que regulen los incentivos fiscales al mecenazgo.

Artículo 78. Dación en pago de bienes del patrimonio cultural vasco

El pago total o parcial de las deudas contraídas con la Hacienda General del País Vasco podrá realizarse mediante la dación en pago con bienes inmuebles y muebles del patrimonio cultural vasco, conforme a lo dispuesto en la normativa que resulte de aplicación.

Artículo 79. Enseñanza, investigación y formación sobre el patrimonio cultural vasco

1. El Gobierno Vasco, en colaboración con las diputaciones forales y los ayuntamientos, elaborará unidades didácticas en formato digital, en el marco del currículo de las áreas





curriculumaren esparruan, unibertsitatez kanpoko irakaskuntza arautuko ikasleei zuzenduak, euskal kultura-ondarearen berri emateko.

2. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiekin eta udalekin elkarlanean, kultura-ondareari buruzko gaietan ikerkuntza eta prestakuntza sustatuko du, eta helburu horretara zuzendutako lankidetzabide egokiak ezarriko ditu unibertsitateekin eta elkarteekin edo zentro espezializatuarekin, publikoak zein pribatuak izan.

XI. TITULUA ZEHAPEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA ARAU HAUSTEAK

80. artikulua. Ikuskatzea eta ikerketa-prozedura hastea

1. Administrazio eskudunek eta horretarako baimena duten langileek lege honetan ezarritakoak benetan betetzen direla egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten adina jarduera egin ahalko dituzte.
2. Eskumena duen sailak izendatutako ikuskatzaileek agintaritzako agenteen kontsiderazioa izango dute beren funtzioak betetzen dituztenean.
3. Uste bada lege honetan edo lege hau garatzeko arauetan aurreikusitako betebeharren aurkako jarduerarik edo arau-hauste gisa tipifikatu daitekeen jarduerarik egin dela, haiek ikertzeko prozedura hasi beharko da. Horrek ekar dezake dagokion zehapen-prozedura hastea, edo jarduerak artxibatzea, araudi honen aurkako inolako jarduerarik egiaztatzen ez bada.
4. Delituaren edo zigor-zuzenbideko faltaren zantzurik antzematen bada, zehapena jartzeko organo eskudunak Fiskaltzari jakinaraziko dio, eta administrazio-prozedura zehatzailea eten egingo da, harik eta jurisdikzio penalak epaia ematen duen arte. Zehapen penalak, betiere horrelakorik izaten bada, administrazio-zehapena jartzea salbuetsiko du; horrek ez du esan nahi arau-haustea egin aurreko egoerara lehengoratzeko neurririk hartu beharko ez

del conocimiento Historia y Arte, destinadas al alumnado de la enseñanza reglada no universitaria, para dar a conocer el patrimonio cultural vasco.

2. El Gobierno Vasco, en colaboración con las diputaciones forales y los ayuntamientos, promoverá la investigación y la formación en las materias relativas al patrimonio cultural, y establecerá los medios de cooperación adecuados a dicho fin con las universidades y con asociaciones o centros especializados, públicos y privados.

TÍTULO XI RÉGIMEN SANCIONADOR

CAPÍTULO I INFRACCIONES

Artículo 80. Inspección e incoación del procedimiento de investigación

1. Las administraciones competentes y el personal autorizado podrán llevar a cabo cuantas actuaciones consideren procedentes para la comprobación del efectivo cumplimiento de las determinaciones previstas en la presente ley.
2. El personal inspector designado por el departamento competente tendrá, en el ejercicio de sus funciones, la consideración de agentes de la autoridad.
3. Cuando se presuma la realización de actuaciones que pueden constituir vulneraciones de las obligaciones previstas en la presente ley o su normativa de desarrollo o que puedan tipificarse como infracción, se deberá incoar procedimiento de investigación de las mismas, que podrá dar lugar a la incoación del procedimiento sancionador que corresponda o al archivo de las actuaciones si no se acredita vulneración alguna de la presente normativa.
4. En caso de que se acreditara la concurrencia de indicios de carácter de delito o falta penal, el órgano competente para la imposición de la sanción lo pondrá en conocimiento del Ministerio Fiscal, suspendiendo el procedimiento administrativo sancionador hasta tanto se pronuncie la jurisdicción penal. La sanción penal, en caso de que se produzca, excluirá la imposición de la sanción administrativa, sin perjuicio de la adopción de las medidas





denik, edo euskal kultura-ondareari eragindako kalte eta galeren ordainak eskatuko ez direnik.

5. Eskumena duten administrazioek hartu, aztertu eta, hala dagokionean, Justiziaren aurrean martxan jarriko dituzte herritarrek jakinarazten dizkieten kultura-ondarearen kontrako jardueren salaketak.

81. artikulua. Arau-haustearen kontzeptua

1. Kultura-ondarearen arloko administrazioari arau-haustea izango dira lege honetan ezarritako betebeharrak urratzen dituzten ekintzak edo ez-egiteak; zehazki, 82., 83. eta 84. artikuluetan ezarritakoak.
2. Arau-haustea egiteagatik izan ditzakeen erantzukizun administratiboez gain, arau-hausleari urratutako legea betetzeko eska dakioke, baita eragindako kalteen ordaina ere.
3. Administrazio eskudunak, bidezko diren zehapenak jartzea alde batera utzita, neurriak hartu beharko ditu, legezotasuna berrezartzeko eta jarduera arau-hausleak eragindako kalteak konpontzeko.
4. Kultura-ondarearen arloko arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

82. artikulua. Arau-hauste arinak

Euskal kultura-ondarearen arloan, arau-hauste arinak hauek dira:

- a) Babes bereziko eta babes ertaineko kultura-ondasunak aplikatu behar zaien babes-arubidean ezarritakoa urratuz erabiltzea.
- b) Kultura-ondasun babestuen jabeek, edukitzaileek eta titularrek beren ondasunei buruzko informazioa emateari uko egitea edo ondasunak aztertzeko baimenik ez ematea, lege honek ezarritako baldintzetan.
- c) Kultura-ondasun babestuak direla-eta, bisita publikoak egiteko baimena ematearekin lotutako legezko eta erregelamenduzko arauak ez betetzea.

de reposición a la situación anterior a la comisión de la infracción, así como de la exigencia de reparación e indemnización de los daños y perjuicios ocasionados al patrimonio cultural vasco.

5. Las administraciones competentes atenderán, estudiarán y –en su caso– pondrán en marcha las denuncias ante la Justicia de actuaciones contra el patrimonio cultural que les sean comunicadas por los ciudadanos.

Artículo 81. Concepto de infracción

1. Son infracciones administrativas en materia de patrimonio cultural las acciones u omisiones que supongan la vulneración de las obligaciones previstas en la presente ley, en concreto las establecidas en los artículos 82, 83 y 84.
2. Las responsabilidades administrativas derivadas de la comisión de una infracción son compatibles con la exigencia al infractor del restablecimiento de la legalidad y la reparación de los daños causados.
3. La Administración competente deberá adoptar, en todo caso, y con independencia de la imposición de las sanciones que corresponda las medidas tendentes a restablecer la legalidad y a reparar los daños causados por la actuación infractora.
4. Las infracciones en materia de patrimonio cultural se clasificarán en leves, graves y muy graves.

Artículo 82. Infracciones leves

Constituyen infracciones leves en materia de patrimonio cultural vasco:

- a) El uso de los bienes culturales de protección especial y media contraviniendo lo dispuesto en el régimen de protección que les resulta de aplicación.
- b) La negativa por las y los propietarios, poseedores y titulares de derechos reales sobre bienes culturales protegidos a facilitar la debida información o a permitir su estudio en los términos establecidos en esta ley.
